

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

NEKAZARITZA ZUZENDARITZA

Gaubea zonako I., II. eta III. sektoreetako 2. faseko lurzati bateratzearen behin betiko oinarriak zuzentzea

Jakinarazten zaie Gaubea zonako I., II. eta III. sektoreetako 2. faseko lurzati bateratzearekiko interesa duten guztiei Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak onartu duela urriaren 25eko 1982/2016 Ebazpena, zeinaren bidez zuzentzen baitira Gaubea zonako I., II. eta III. sektoreetako 2. faseko lurzati bateratzearen behin betiko oinarriak. Oinarriok jendaurrean egongo dira Gaubeako udaletxean, hogeita hamar egun baliioduneko epean, abisu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Interesa dutenek azter ditzaketen dokumentuak honako hauen ingurukoak dira: barne hartutako lurzatiak, jabari publikokoak izanik salbuesten diren eremuen eta bazter utzitako finken perimetroa zehaztea, lurren sailkapena eta koefizienteen zerrenda, eta jabeak eta kargen edo bestelako egoera juridikoen titularrak zehaztea, zeinen jabaria eta titulartasuna formalki aitortu baitira.

Behin betiko oinarrien zuzenketa hauen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritza Saileko foru diputatuari, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko den idazki baten bidez, gorago adierazitako hogeita hamar eguneko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 25a

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua
JOSE ANTONIO OCIO ORIVE